

# euskara eta feminismoa bidelagun

Azaroko astearteetan mahai-inguruak online

Antolatzaileak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKARI SAIA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EMAKUNDE  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Hizkuntza eta Generoa batzordea

## Euskalgintza eta feminismoa: bi gorputz elkarrekin dantzan

*Galdera mamitsuak bota dituzte Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek 'Euskara eta Feminismoa bidelagun' jardunaldietako lehengo mahai-inguruan: Nola txirikordatzen dira hizkuntzak eta generoak? Zein mekanismo errepikatzen dira hizkuntza minorizatuen eta emakumeen zapalkuntzan? Botere sistemai aurre egiteko zein estrategia konpartitu ditzakete euskalgintzak eta feminismoak?*

June Fernandez

Feminista euskaltzaleek eta euskaltzale feministek egindako bide luzearen emaitza dira "Euskara eta Feminismoa bidelagun" jardunaldiak, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak, Emakundek eta Hizkuntza eta Generoa batzordeak elkarlanean antolatu dituzte. "Eskuartean dugun gai honi bultzada, gogoeta, militantzia, ekimena eta pentsamendua eskaini dietenei, baita akademiatik ekarpena egindako guztiei ere" eskerrak emanez hartu du hitza Lorea Agirrek. Idurre Eskisabelekin batera osatu du lehengo mahai-ingurua, "Hizkuntza eta generoa: hurbilpen teoriko bat" izenburu duena.

Lorea Agirre Dorronsoro eta Idurre Eskisabel Larrañaga beasaindarrek bide luzea egin dute elkarrekin. Biek kazetaritza eta antropologiako formazioa dute, Euskaldunon Egunkarian eta Berrian kazetari ibili dira eta Eskafandra kolektibo feministako kide dira. Agirre Jakin aldizkariako zuzendaria da, eta Eskisabel hedabide horren kontseiluko kide da. Ikerketa arloan, Eskisabelek sexu-genero sistema eta nazionalismoen arteko harremana, nazio iruditeria eta hedabideen artekoa eta hizkuntzaren alderdi soziala landu ditu, batik bat. Bere aldetik, Agirreren ikergai nagusiak hizkuntza minorizatuak eta ikasketa feministak, eta kultura, hizkuntza eta komunitateen arteko loturak dira. LISIPE bilduman argitaratu duten Trikua esnatu da liburuan garatutako hainbat galdera eta tesi plazaratu dituzte online egindako mahai-inguruan.

### Berritsu mari-mutilak

"Andre berritsuak, sarri baztarrak lohi" eta "Ta zu, berritsu, mari-mutille!" esaera zaharren analisisiaz baliatu da Agirre gizarte sistema patriarkalean errotuta dauden estereotipo sexistak agerian uzteko: "Emakumeek ez dute hitz egiten, berriketan egiten dute. Hitza hartzen duen emakumea itsusia da, ez da txukuna, zikina da, ez da araukoa. Are gehiago, mari-mutila da, gizonek bezala jardun nahi duelako. Emakumearen tokia eremu pribatua da, etxea, sukaldea, zaintza, ez plaza edo parlamentua". Kontraposizioz, gizonei autoritatea ematen dien diskurtsoa marraztu du:

ez da berritsua, diskurtso egituratua egiteko gai den subjektu arrazionala baizik, eta hitzak ez du gizona itsusi egiten, baizik eta gizon egiten. “Bere lekua plaza da, esparru politikoa; gizonak hitza hartzen du eta mundua kontrolatzen du. Hau izan da gure mundua eta zantzu hauek oraindik ere indarrean daude gure gizartean”, ondorioztatu du.

EHUko Antropologia sailaren baitan doktore tesia egiten ari da ikerlaria eta, hortik tiraka, hizkuntza eta generoaren inguruan mendebal mundu mailan akademian ikertutakoaren errebasoa egin du. Alessandro Duranti antropologoak, Pierre Bordieu soziologoak, Deborah Cameron eta Penelope Eckert linguisten aipuez baliatu da hizkuntzen bidez arau eta gatazka sozialak bideratzen direla gogoratzeko, hau da, hizkuntza disziplinatze-tresna dela. “Hizkuntzaren erabileran eragin determinatzailea du ordena heterosexualak”, esan zuen azken honek. Izan ere, hitz egiteko modu ezberdinetan hezten gaituzte gizonak eta emakumeak: hitza, lexikoa, ahotsa, tonua, autoritatea edo gorpuzkeran sexu-genero sistema binario eta dikotomiko hori indartu egiten da. Ikerlariak airean utzi du galdera bat: euskaraz egiten dugunean eta erdaretan egiten dugunean, aldaketarik agertzen ote da gure ahotsean, gure gorpuzkeran edo aitortzen zaigun autoritatean?

Robin Lakoff-en “Language and women’s place” (1972) liburua [“Hizkuntza eta emakumearen tokia] lan fundatzailetzat hartu izan da. Gizonen eta emakumeen posizioen gaineko desberdintasun soziala desberdintasun linguistikoan islatzen dela demostratu zuen Estatu Batuetako linguista honek. Ispilu hutsa baino, hizkuntzak eta generoak identitatea eta botere harremanak elkarrekin eraikitzen dituztela azaldu zuen. Horrelako bibliografia baliagarria bada ere, besteak beste hizkuntzaren erabilera ez sexista jorratze aldera, hizkuntza ofizial bakar bateko errealitateetan dago kokatuta. Aitzitik, euskal akademiak hizkuntza eta generoari buruzko ezagutzan ekarpen interesgarria egin dezakeela uste du Agirrek: zer gertatzen da generoarekin bi hizkuntza egoera diglosikoan daudenean eta hizkuntza minorizatuaren biziberritze prozesuetan? “Hizkuntzaren sozializazioak eta genero sozializazioak bat egin duten lekua da euskara”, ondorioztatu du.

### **Emakumeak, euskararen zaindaria**

Galdera horri erantzuna emateko, Kike Amonarrizen lanera eta Jone Miren Hernandez eta Jaime Altunaren ikerketetara jo behar dugu. Batak eta besteak euskararen erabileraren kaleko inkestak genero ikuspegiarekin aztertu dituzte. Idurre Eskisabelek nabarmendu du emakumeek gehiago egiten dutela euskaraz gizezkoek baino, adin tarte guztietan, nagusien artean izan ezik. Hori ez da beti hala izan: 1997an genero aldagaia kontuan hartuta egin zen lehenengo inkestak adierazi zuen gizezkoek emakumeek baino gehiago erabiltzen zutela euskara. Orduetik, ordea, kontrako joera finkatu eta orokortu egin da. Zenbat eta gazteago, are eta alde handiagoa erabileran, nesken alde.

Euskaltzetasuna genero sozializazioarekin lotzen duen datu gehiago eman ditu Eskisabelek: Euskaraldian 2018an parte hartu zutenen % 62 dira emakumeak, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskaltegietako ikasleen ia % 70 osatzen dute. Lehengo datua gizartean parte hartzeko eta aldaketarako prest egoteko grinarekin lotu du. Euskaltegietako datuak azaltzeko, aldiz, bi arrazoi eman ditu: alde batetik,

euskararen ezagutza exijitzen den lan-esparruen feminizazioa (irakaskuntza, osasun-sistema, administrazio publikoak, hirugarren sektorea...) eta, bestetik, "nor dagoen ahalegina egiteko prest". Modu sinbolikoan zein praktikoan euskararen feminizazioa gertatu dela adierazten dute datu horiek, kontuan hartuz hizkuntzaren sozializazioa, transmisioa eta hedapena emakumeen bultzakada nabarmena dela, besteak beste beraien gain jarraitzen duelako haurrak heztearen ardura.

Trikua esnatu da liburuaren egileen tesi nagusi bat da botere-sistemek emakumeak eta hizkuntza minorizatuak menperatzeko estrategia komun bat darabiltela: naturalizazioa. "Emakumea eta euskalduna modu berean naturalizatzen dira: biak dira bigarren mailakoak, goxoak, biak daude zaintzari eta eremu pribatuari lotuak eta ez politikari, borrokari edo lehiari lotuak", hausnartu du Agirrek.

Eskisabelek azaldu du biziberritze eta normalizazio diskurtsoan emakumeei kutsu sexista duten bi rol esleitu zaiela. Alde batetik, euskararen ama zaindariarena (Emakume Abertzale Batzak lehengo eta ikastoletako andereñoek geroago gorpuztutakoa). Bestetik, horren ifrentzu modukoa den diskurtso bat: euskararen galera emakumeen ardura faltari leporatzen zaiona. "Etxekalte txolinaren ipuina" deitu dio estereotipo horri EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleak: "Hiritartze prozesuari lotuta, zer erraz utzi zuten emakumeek euskaraz egiteari, nola uko egin zioten euskarari modagatik". Horri erantzuteko, Teresa del Valle antropologoaren "Mujer vasca, imagen y realidad" saiakeraren garrantzia azpimarratu du. Del Vallek ama transmisorearen rola hankaz gora jarri zuen eta azaldu zuen hiritartze prozesuetan erdaretara maizago jotzeak botere ezarekin lotura zuzena zuela: "Konpentsazio modu bat izan zen mundura atera ahal izateko", laburtu du Eskisabelek.

### **Euskaldun jatorra, gizonezkoa**

"Euskalduna ez da jaiotzen, egin egiten da". Simone de Beauvoirren aipu ospetsuaren oihartzuna du Txillardegiren diskurtsoak. Sabino Aranaren tradizioarekin apurtu zuen paradigma berri horrek, eta euskalduntasuna arrazarekin lotu ordez euskara jarri zuen euskaldun identitatearen erdigunean. Hortik aurrera ikastolak eta gau eskolak barra-barra sortu ziren eta euskaldun berriaren figura hizkuntzaren biziberritzearen giltzarri gisa agertu zen. Prozesu horretan, diskurtso jakin bat gailendu zen: euskara desagertzeaz dagoela, txikia dela, salbatu behar dela, eta, horretarako, babestu eta zaindu behar dugula. Agirre eta Eskisabelen ustez, "zaintza" kontzeptuaren protagonismoak badu zerikusia aipatutako euskararen feminizazio prozesuarekin, narratiba horrek gehiago interpelatzen dituelako emakumeak gizonak baino. "Esan digute euskarak izan behar duela erakargarria, atsegina, babeskorra, inposatuko ez dena. Feminitatearen ezaugarriekin lotu dute. Gizon eta mutilek, ordea, ez dute beraien burua zaintzan kokatzen baizik eta kanean, gatazkan, lehian", azaldu du Agirrek.

Halaber, euskararen feminizazio prozesua argia bada ere, aldi berean, zenbait testuingurutan, euskara maskulinitatetik eraikitzen da eta maskulinitatea euskaratik. Bereziki, nekazaritza munduko arnagune linguistikoetan kokatu dute hizlariak fenomeno hori. Gogoan dute Gipuzkoako landa eremuko hogeitau herri txikitan egindako ikerketa bat, erakusten zuena gizon normatiboak zirela beraien etorkizuna herrian kokatzen zutenak. Emakumezkoek eta eredu hegemonikotik kanpo zeuden

gizonek, ordea, herritik alde egiteko asmoa adierazi zuten. Nafarroako landa-eremuan egindako beste ikerketa batek ere erakusten zuen euskaldun gizonen arteko kohesio sentipenaren indarra. “Bertsolaritza habitat maskulinoa dela erakutsi digu Uxue Alberdik Kontrako ezarririk saiakeran. Euskaldun jatorra, naturalaren eredia ere ote da habitat maskulino bat? Gure tesia da baietz”, gaineratu du Agirrek. Horregatik, arnaguneen begirada kritiko feminista egiteko gonbita bota du, askotan eredugarri gisa aurkezten baitira botere-harreman horiek aintzat hartu gabe. “Hizkuntza praktikak eta genero praktikak elkarrekin despatriarkalizatzeko beharra eta aukera daukagu, elkarrekin operatzen baitute”, ondorioztatu du.

### **Bi gorputz elkarrekin dantzan**

“Gaur eta hemen, emakume izateak eta euskaraz bizitzeak zailtasun erantsiak dakartza”, salatu du Idurre Eskisabelek hitzaldiaren azken partean. Zapalkuntza eta baztertzeko mekanismoak berdina bada, hortik ateratzeko mekanismoak ere berdintsuak izan daitezkeelako tesia aurkeztu du. Generoa eta hizkuntza aldagaiak jardunaldien erdigunean badaude ere, begirada interseksionala funtsezkoa bat ulertzeko sexu-genero sistemak eta hizkuntza-sistemak klasearekin, baliabide materialekin, migrazio prozesuekin eta gainerako baldintzapen sozialekin gurutzatzen direla.

Feminismoa eta euskalgintza bi gorputz sendo direlarik, “nola jarri elkarrekin dantzan, zer eman diezaioke nork nori?” Galdera hori proposatu eta erantzun du Eskisabelek. Haren ustez, euskalgintzak feminismoari egin diezaioken ekarpena herri ekimena eta komunitatea aktibatzen jakituria eta praktika da. “Euskalgintzak pentsamendu eta praktika hegemonikotik at bizitzeko moldeak eta instituzioak sortu ditu, hala nola ikastolak, euskarazko hezkuntza sistemak, asko kooperatibistak direnak... Emantzipazioa lekuan leku gorpuzteko aukera sortu du. Komunitategintzarako lurzoru ongarritu bat eman diezaioke feminismoari”.

Eta zer hartu dezake euskalgintzak feminismitik? Azken urteotan izan duen zabalkunde eta onarpen sozialaren gakoa izan da urteetan unibertsaltzat hartu den gizon hegemonikoa auzitan jartzea. “Feminismoak auzi identitarioa justizia sozialeko auzi bihurtu du, eta argi utzi du jokoan dagoena ez dela batzuen eskubidea baizik eta gizartearen demokratizazioa bera. Euskalgintzak badu hortik zeozer jasotzeko”. Feminismoak horretarako erabili duen mekanismo bat interpelazioa izan da, hau da, subjektu hegemonikoari ozen esatea: “Zu zara ez didazuna uzten ni naizena izaten”. Interpelazio hori zoko guztietara zabaldu du, orain arte pribatutzat edo intimitzat jo direnak barne, esaterako nork garbitzen duen etxe komuna. “Seguru asko euskal hiztunok interpelazio horiek noiz, non eta nola egin ebazteko bide handia egin beharko dugu”, hausnartu du.

Bide horretan sakontzeko gogotsu agertu dira hainbat entzule, txataren bidez. “Nola interpelatu erdaldun elebakarra?”, galdetu du batek. Lorea Agirrek euskararen inposizioaren gezurrari erantzuteko argudioak eman ditu: “Euskara biziberritzea ez da inposatzea; ematea da. Eta euskara ez da baztertzaila, integratzailea da”. Adierazi du kontua ez dela soilik euskaldunek euskaraz egiteko eskubidea dutela, baizik eta Euskal Herrian bizi den orok izan behar duela eskubidea euskaraz bizitzeko. “Hori exijitu behar dugu, hau da, euskalduntze prozesu masibo, unibertsal eta doako bat”. Amaitzeko

mezu gisa, gatazkaren beldur ez izatea defendatu du Eskisabelek: “Gatazka izendatzea konponbidea aurkitzeko lehenengo urratsa da. Hortaz, goazen elkarrekin pentsatzera!”.

# euskara eta feminismoa **bidelagun**

## Hizkuntza eta generoa: hurbilpen teoriko bat

Azaroak 3, 10:00 - 11:30 mahai-ingurua



Lorea Agirre Dorronsoro



Idurre Eskisabel Larrañaga



Aurkezlea:  
Eider Olazar Elduaien

Antolatzaileak



EUSKO IRULARRITZA  
GOBIERNO VASCO



EMAKUNDE  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

KULTURAREN HEZKUNTZA  
POLITIKA SAIKA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hizkuntza eta Generoa batzardea